

«Portugalete hiri lagunkoia» bideo laburren lehiaketa



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa

«Portugalete hiri lagunkoia» bideo laburren lehiaketa

Hartu-Emanak elkarteak sustatu du bideo laburren lehiaketaren edizio hau, Portugaleteko Udalak lagunduta, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko asmoz eta OMEk (Osasunaren Mundu Erakundeak) Hiri Lagunkoien Proiektuak sustatzeko duen estrategiarekin bat eginik. Helburua da pertsonekin lagunkoiagoa izango den Portugalete bat lortzea, eta, horretarako, herriko gazteen ekarpenak jasoko dira, bideo laburretan eginiko ohar eta proposamenen bidez. Bideoek 2 eta 5 minutu arteko iraupena izango dute, eta gehienez 18 urte dituzten 5 gazte edo gehiagoko taldeek egin beharko dituzte.

DATAK: Parte hartzeko izen emateak azaroan egingo dira. Bideoak apirilean entregatu beharko dira. Epaimahaiaren deliberazioa eta sari banaketa datorren urteko maiatzan egingo dira.

SARIAK Ikasturtea amaitzean, 300, 200 eta 100 €-ko eskudiruzko hiru sari eta trofeo eta accesit bat banatuko dira. Parte hartzaile guztiek diploma bat jasoko dute, eginiko lanaren aintzatespen gisa. Espero dugu Portugaleteko haur eta gazteak, gabeziak antzemanek eta hobekuntzak proposatuz, gure hiriko ikastetxeen erabateko ordezkari izatea beren partaidetzaren bidez.

1. Erakunde sustatzaileak

HARTU-EMANAK elkarteak
Portugaleteko ikastetxeak

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Portugaleteko 18 urte arteko ikasleak

4. Lurralde eremua

Portugalete (Bizkaia)

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Parte hartzea, belaunaldien artekoa, Bizkaia, kultura, aisia

7. Helburuak

Proiektu honek helburutzat jotzen ditugun bi alderdi jorratzen ditu, herritarren partaidetzaren bidez: errespetua eta inklusioa.

1. Portaera zibikoa hobetzea hiriko ingurune naturalari eta instalazioei dagokienez, ordena, garbitasuna, osasungarritasuna, higieña, birziklatzeko ohiturak, altzari publikoen kontserbazioa eta abar sustatzeko.
2. Pertsonetikiko errespetua eta haien gizarteratzea hobetzea, tratu lagunkoiagoa emanez. Mugitzeko edo bestelako zailtasun gehien dituzten pertsonen laguntzea, emakumeenganako errespetua indartzea, desberdinen integrazioa erraztea diskriminatu gabe, eta Portugalete guztiok nahi dugun pertsonetikiko hiri lagunkoia izan dadin bultzatzeko beste ekintza batzuk egitea.

8. Metodologia

Ikus-entzunezkoetan adituak diren bi lagun laguntzarekin, TUTORIAL bat egiten da bideo laburrak hobeto lantzeko, eta hala eskatzen duten ikastetxeei prozedura ikastetxean bertan azaltzeko aukera ere ematen zaie. Ikasturteko datarik onenak planifikatzen dira, ikastetxeek ikasturtearen hasieran beren programetan kontuan har ditzaten eta curriculum balioa eman diezaioten.

Oso garrantzitsua da proiektua aurkeztu zaien tutoreen inplikazioa.

Ikasturte osoan zehar, urtea amaitu baino lehen, ikastetxearen inskripzioa egiten da. Lehenengo hiru hilekoan, tutorearekin batera, aurkezteko moduko lanak aztertu eta bideoak grabatu eta editatu egiten dira. Lanak maiatzean entregatzen dira, eta sariak ikasturtea amaitu baino lehen (ekainean) banatzen dira.

9. Alderdi berritzaileak

Garrantzitsua da gazteek hiri lagunkoi baten diseinuan parte har dezaten bultzatzea, adinekoen zuzendaritzapean.

Gazteek gero eta gehiago parte hartzen dute parte sare sozialetan beren iritziak emateko, eta bideoak ere gero eta gehiago erabiltzen dituzte helburu berarekin. Ildo horretan, bi jardunbide egokiak batuta eta ordenatuta, pentsatu genuen ekimen berritzailea izango zela, ez baikenuen inoiz antzeko lehiaketarik ezagutu. Gainera, tutoreek jarduera garrantzitsutzat jo zuten eta curriculumeko jarduera gisa onartu. Nagusiontzat interesgarria da benetan, eta ilusio handia jarri diogu, belaunaldien arteko partaidetzako proiektu berritzailea baita eta bete-betean sartzen baita PORTUGALETE HIRI LAGUNKOIA proiektuan. Horregatik, elkarre gisa, Portugaleten ezartzea sustatu genuen, eta Udalarekin bilera asko egin ondoren, haren babesa lortu genuen.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Ikasturte amaierako sari banaketan, lehiaketan parte hartzen duten ikastetxe guztien ordezkariak biltzen dira. Haiei guztiei iritzia eskatzen zaie proiektuaren abantailai eta zailtasunei buruz, ikasturte eta ikastetxe bakoitzaren zirkunstantzien arabera.

Lehen lehiaketan ikusi zen ezin zirela kategoria berean sartu Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta Batxilergokoak, adibidez. Bigarren lehiaketan, bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide heziketa eskaintzen dituzten ikastetxeak bakarrik gonbidatu ziren.

Ikastetxe guztiek oso positibotzat jo dute proiektua, gazteen partaidetzagatik, talde lanagatik eta teknologia berrien erabileragatik. Bestalde, ikusi da proiektuak dedikazio handia eskatzen duela bideo tematiko bat egiteko; izan ere, gidoia prestatu behar da, grabazioa egin audio onarekin (zaila kanpoaldean), eta argia ere aintzat hartu behar da bideoetan. Bestalde, edizioa eta muntaketa, atzeko musika, tituluak eta abar ere egin behar dira.

Bilera horretan, halaber, teknikarien iritzia jasotzen da, bideoen kalitate artistikoa aztertzen da, eta Hartu-Emanakeko adinekook bideoetan lantzen den gaiari eta helarazten duten mezuari erreparatzen diegu batez ere.

Sariak banatu aurretik, jasotako bideorik onenak aukeratzen dira. Alde batetik, teknikariek bakarka ikusten dituzte Hartu-Emanaketik bidaltzen dizkiegun bideoak, eta bestetik, Hartu-Emanakeko nagusiok jasotako bideo guztiak ikusteko saio bat egiten dugu, eta nagusi bakoitzak bideo bakoitza baloratzen du, zenbakizko puntuazio batekin. Horrela, eta iritzi bakoitza kontrastatuta, 5 bideorik onenen aurrehautaketa egiten da. Berriz ikusten eta puntuatzen dira eta berriz kontrastatzen dira iritziak. Horrela erabakitzen dira lehenengo hiru bideoak, ondoren 300, 200 eta 100 euroko sariak jasoko dituztenak.